

## ‘Euskal harriak. Trantsizio sozio-ekologikorako gogoetak’

liburutik hartutako pasarteak (Alberdania, 2011)

Joseba Azkarraga Etxagibel

Zerk ordezkaturiko du gaur hil zorian dugun sistema? Hori izango da hurrengo 25-50 urteetako eztabaida politiko nagusia. Ongi finka dezagun arazoaren muina, beraz: eztabaidagai dagoena ez da Mendebaldeko zibilizazio industrialak eta honi loturiko bizierak iraungo duten ala ez. Jokean dagoena zera da, bere azkena zelan gauzaturiko den. Bi aukera baitaude, aukerak muturreraino sinpletuta:

- *Trantsizio ordenatua* eragin dezakegu; aterabide suabea, nolabait. Era elkartuan sor ditzakegu ekoizteko, kontsumitzeko eta bizitzeko bestelako moduak. Inteligentzia politikoa baliabide nagusi hartuta, ongizatea birdefinituko lukeen trantsizioa litzateke, baieztatuz ondo bizi gaitzkeela, baita hobeto ere, gutxiagorekin —baita askoz gutxiagorekin ere—.
- Edo behartuta egin beharko dugu bide hori, *trantsizio desordenatuaren* bidez, behi puztuek hiltegirako bidea egiten duten antzera. Kasu horretan, jasan beharko dugu sufrimendu, injustizia, desorden sistemiko eta militarismo gehiago —begiratu azken aspaldiko gerra tragikoenei: eskas ditugun errekurtsioak eskuratzeko afana dago oinarrian—. Kolapso katastrofiko arin eta erabatekoaren tesia dago honen mutur-muturrean.

Gaurko zibilizazio-ereduaren beheraldia ordenatua(goa) ala desordenatua(goa) izan daiteke, *emaitza ez bilatua* edo *helburu kontzientea*. Mendian behera irrist egin dezakegu, kontrola galduz eta geure gorputzak auskalo zeren kontra amilduz, ala jaitsaldi lasaia presta dezakegu, makuluak lagun eta gorputza gehiegi zigortu gabe. Beheraldiak bata ala bestea har dezake ardatz. Ikusi behar, zenbaterainoko adostua den ibilbidea eta zenbaterainoko indarrez moldatua. Eta sinets dezagun oraindik aukera dezakegula biotako zein jaitsiera-bide egin —aditu guztiak hain baikorrak ez badira ere—. Hori bai, aldatzea ez dago aukeragai: exijentzia fisikoa da gutxiagorekin bizitzea, halaxe agintzen du baliabideen eskasia hazkorrak, aldaketa klimatikoarekin konbergentzian. Gutxiagorekin *hobeto* bizitzea, ordea, urratu beharreko bidea da, gehiengoak erakarriz idatzi beharreko gidoi politiko berria.

Trantsizio ordenatu batek jakituria handia eskatuko luke (noiz eta eskasia garaian). Beharbada sekula erakutsi ez dugun aurreikuspen gaitasuna, planifikatzeko ahalmena, konbikzio

demokratikoa, kohesio soziala, eta gatazkak modu baketsuan kudeatzeko gaitasuna. Eta tonaka behar genuke beste zerbait: nazioarteko elkartasuna. Sendo behar genituzke gizadiaren historian hain puntualki erakutsi ditugun bertuteak.

Seguruenera, kontsumoaren murrizte boluntarioa baino indartsuagoa izango da errealitateak berak inposatuko digun soiltasuna, baina kasu horretan ere behar-beharrezkoak izango dira ekintza-programa indibidual, komunitario eta politikoak, eskasia behar bezala administratze aldera.

Lankidetzeta eta adostasun altuko aterabideak hautatuko ez balira, birbanatze gatazka larriak aurreikus daitezke, bai estatuaren artean nola estatu barneko sektore ezberdinen artean. Dagoeneko dozenaka dira iturri bera duten gatazka armatuak: baliabide urriak hazkorra den giza populazioarentzat. Urritasunak gora egin bitartean, nekez egingo dute tentsioek behera. Ozenagoak izan daitezke armen hotsak, armak asko direnean eta suntsipen ahalmen egundokoa duten sasoiaren. Izan ere, munduko aurrekonturik handienak aurrekontu militarrek dira, eta negozio handia handienetan handienentzat: Nazio Batuen Segurtasun Kontseilua osatzen duten herrialdeek —AEB, Erresuma Batua, Frantzia, Errusia eta Txina— munduko armamentu guztiaren %85a baino gehiago esportatzen dute.

Lankidetzeta eta adostasun gutxiko testuinguruan, hazkorra izango da sistemak praktikatu duen *bortxa estrukturala*, gutxiegi erabiltzen den kontzeptuari hautsa kentzearen: funtsezkoak diren baliabideak —hezkuntza, osasuna, gutxieneko materialak, posizio juridikoa, eta abar— ez dira egongo guztiontzat berdin eskuragarri, eta gizarteak modu sistematikoan birsortu edota handituko ditu ezberdintasunok —bai eskala globalean nola gizarte barruetan—, bere dinamika propioak bultzatuta.

Arma bete zorro, etorkizuna hautu totalitarioz bete liteke, edota “hau nik konponduko dizuet” dioten lider populistez. Baita erantzun humanizatzailez ere, kontraesan sozial eta ekologiko erraldoiek eragindako gizalegezko erantzunez. Gatazken tamainak eta nolakotasunak erabakiko dute gizarte-eredu berriek zein norabide hartuko duten: erregimen autoritarioagoak (kriminalitate molde antolatuekin eta bestelako aterabide ‘darwinistekin’), edo gizarte orekatuagoak ikuspegi sozial eta ekologikotik. Gauzak ondo, kolapsoak ez du ekarriko periodo katastrofikoa edo kaosa, ezpada konplexutasun gutxiagoko giza kondizioa eta gizarte-eredua.

Ugariak dira kolapsora heldu diren giza zibilizazioak, behin agorturik euren oinarritzko erregio-baliabideak. J. Tainterrek halaxe definitu du kolapsoa (*The collapse of complex societies*): “Kolapsora heldu den gizarte konplexu bat, bat-batean txikiagoa da, sinpleagoa, estratifikazio

eta ezberdintasun sozial gutxiagokoa. Informazio fluxua murriztu ohi da, jendeak komertzio eta interakzio gutxiago du eta, oro har, koordinazio gutxiago dago norbanakoen eta taldeen artean. Jarduera ekonomikoa gain-behera etorriko da aurreko guztiaren neurri berean.”

Beharbada *kolapso* hitza ez da egokiena, irudikatzen baitugu kaosa, sistema industrialaren erortze bizkorra eta erabatekoa. Beharbada komeni da munduaren akabera aldiro-aldiro iragarri duen imaginario kristauetatik ateratzea, edo ez jarraitzea Hollywoodeko istorioen lorratzak. Beharbada *jaitsiera* da hitza: irudikatu behar genuke konplexutasun gutxiagoko giza kondizioa ekarriko duen jaitsiera graduala; edo zenbait gorakada txikiz zipriztindutako beherako bidaia; edo estadio egonkorren hurrenkera, tarteka krisiren batek —mini-kolapso batek— kolpatuko dituen, kolpe bakoitzarekin gizarte industrialaren aspektu bat desagerraraziz. Historian dokumentatuena den kolapsoa, Erromako Inperioa, ez zen erortze bat-bateko eta erabatekoa izan.

Ordenazaleek balentria lotsagabetzat hartuko dute: gaurko tendentziei erreparatuta, zalantza ez da zibilizazio industrial produktibista hilko den ala ez; zalantza da hilko ote den hilez.

(...)

Giza beharrianak ase ohi ditugu hiru iturri erabiliz. Ekoizpen ekonomikoa —merkatuak edo estatuek zuzendua— iturrietako bat da: osasun zerbitzuak, automobilak, hezkuntza, etxeko altzairuak, dendetan salgai ditugunak. Hau da, diru trukean oinarritutako jarduna (Barne Produktu Gordinak neurtzen duen hori).

Badira, berriz, beste bi iturri giza premiak egokiro ase nahi izanez gero. Batetik, diru trukerik gabeko giza harremanak: umeen hazkuntza, zaintza, identitatea, aitortza, afektuak, eta abar luze bat. Hau da, tradizionalki emakumeen eskuetan geratu diren funtzioak. Hirugarrenik, ekosistemaren emana, bere bidez asetzen baititugu beste hamaika beharrian: naturatik datozkigu ura, petrolio, edota oxigenoa, adibidez.

Ernest Garcia eko-soziologoak ondo dio: lehenbiziko iturria eskasa denean —produktzio ekonomikoa— eta hurrengo biak oparoak —dirurik gabeko giza harremanak eta sistema naturala—, orduan bai, orduan hazkunde ekonomikoak ongizatea ematen digu, eskasiak estali ohi baititu. Ordea, Mendebaldearen garapen-ereduak eraman gaitu produktio ekonomikoaren esfera nahi beste hedatzera; alegia, lehen iturria beste bien kaltetan gain-garatzera. Eta hortxe

Mendebaldeko garapen-ereduaren arazoa: ekoizpen ekonomikoak tamaina itzela hartu du, baina eskatu zaizkigu giza premiak asetzeko beste bi iturri ezinbestekoak. Garapen ekonomikoak beti ditu koste sozial eta ingurumenezkoak, giza kontaktuek kalitatea galdu ohi dute eta sistema naturalen funtzioak galdu ohi dira. Une batetik aurrera, garapen ekonomiko gehiagok ez dakar ongizate handiagoa.

Beraz, metabolismo sozioekonomikoa ez da soilik hazi sistema naturalaren lepotik. Pertsonok ere makinaria produktibora lotu gaitu enpleguaren bidez; hasieran gizonezkoak, baina aspalditxotik ez du inongo sexurik mespretxatzen, guztiak nahi ditu bere logikapean. Enplegu izeneko jarduerak pertsonon denbora kolonizatu du —izan gizonezko, izan emakumezko—, eta zaintzari loturiko egitekoak baztertuta geratu dira, nahiz ezinbestekoak diren pertsonen ongizaterako, gizartearen birsortzerako, ekonomiarako, giza beharrianak behar bezala asetzeko. Diru trukerik ametitu izan ez duten jarduerak (etxeko lanak edota zaintzari loturiko egitekoak) funtsezkoak izan dira sistema sozioekonomikoak funtziona dezan, baina gaur hutsune galanta dugu diru trukerik gabeko eremuan. Ahituta geratu zaizkigu arrazoi produktibistatik kanpo geratzen diren giza jarduerak. Krisien zerrenda luzeari, *zaintzaren krisia* gehitu behar.

Ekonomia feministak aspaldi esan zigun zinez oinarritzkoa den zerbait: ordena sozioekonomikoaren erdigunean etekin monetarioa ez, giza premien asebetetzea eta bizitzaren mantentzea jarri behar dira. Giza beharrianak egoki ase aldera, lehenik eta behin beharrezkoa izango da ‘giza beharrian’ kategoriari bere balio kategorikoa aitortzea. Baita berau logika ekonomiko eta produktibistatik blindatzea ere. Eta, gizentasuna sakon birdefinituz, diru trukerik gabeko jarduerak ondo banatzea, hankartean hau ala bestea egokitu.

(...)

Hazkunde etengabearen zibilizazio honek alkohol tasa sekulakoa duen gidari inkontzientearen antza du. Parrandaren ostean, gidatzeko ondo dagoela dio, primeran egon ere. Mingaina alderik alde irristatu bitartean, ulertu diogu bidea ondo baino hobeto ezagutzen duela. Belaunak amore eman eta gorputzak eskuinera egin dio, baina tentetzea lortu eta normal itxurak eginez, patxada iradoki digu: lasai egon, zerbait gertatuko balitz auskalo zein arrazoi ulertezinengatik, segurtasunerako aurrerapen teknologiko guztiak txertatuta dituen autoan goaz.

Bitxia da: egunero sartzen gara auto horretan. Oraindik lasaitasuna ematen digute hazkunde ekonomikoaren gidari zoroek, Barne Produktu Gordina gora egiten ikusteak, autoen ekoizpen hazkorrak eta gisakoek. Epe erdi-luzera akats egundokoa badira ere, oraindik *mantra* moduko

bat dira gehienentzat, are gehiago krisi garaian: nahikoa da horiek hazten ari direla entzutea, eskuratzeko lasaitasuna, mantsotzeko entzefalograma ikaratua, goxo biltzeko hartzairen lozorro inkontzientean.

(...)

Behar dugun trantsizio sozio-ekologikoa nekez egingo da lege inposizioz; ez bere bertsio jatorrean, behinik behin. Behar dugun trantsizio handia operazio erabat kontzientea izan beharko da, beste batzuk ez bezala —nekazal iraultza edo industria iraultza—. Mugimendu kultural-politikoa behar luke, ondorioz: norbanako eta komunitate inplikatuak behar ditugu, kontziente direnak bai materialismoaren kostu ekologiko, sozial eta psikikoez, nola trantsizio handiaren onura indibidual, komunitario eta sozialez.

Enfokatu dezagun ondo, beraz: trantsizioa bada bidegurutze, baina ez du zertan gurutze-bidea izan. Ez da nahitaez erosotasuna, niaren autoerrealizazioa eta ongizatea galtzera zuzendutako martirioa. Aberatsok irabazteko txartel ugari eskuratzeko genituzke abentura berrian. Adibide asko dugu jakiteko *gehiago* ez dela beti *hobeto*.

(...)

Hil aurretik, amamak utzi zidan irakaspen baliotsurik. Azkenengoz ikusi nuen 2011ko urtarril hartan, gelara sartzeaz bat nabarmendu zitzaidan sabaitik eskegitako lanparak zazpi bonbilla zituela baina bakarra zegoela piztuta. Gelari halako argiztatze misteriotsua ematen zion, erdi-ilun erdi-argi. Aurkitu nuen unea galdetzeko ea lanpara apurtuta zegoen. Ezetz berak, nahita zituen argi barik sei bonbillok. Umil azaldu zuen bakarrarekin nahikoa zuela. Ez nuke esango aurreztearen aldeko bizi-jarrera zenik, ezpada nahikotasunaren printzipio aurremodernoa. Lehenbizikoan subjektuak gehiago nahi luke, baina automugatzea erabakiko du ekonomiak edota kontzientziak eraginda. Bigarreanean sinpleagoa da: subjektuak ez du gehiago nahi, ez duelako gehiago behar.

Adibideak balio du ohartzeko trantsizioaren dimentsio makro-politikoa ez dela agortzen Estatua (politika publiko berriak), Merkatua (ekonomiaren ulerkera arraz ezberdina), eta Zientziak osaturiko hirukoan. Mahaiak laugarren hanka falta du: Kultura. Giza baloreak alegia, dimentsio subjektiboa, gu geu. Ez baita poshazkunderako trantsizio egokirik izango eratzen ez bada horren aldeko subjektu kolektiborik, kultura postmaterialistan oin hartuko duen jendarterik, norbanako postmaterialistaz osaturiko komunitaterik.

Gizartearen *errailak* aldatzeaz gain —berau sostengatzen duten makroestruturako ekonomiko, politiko eta zientifikoak—, *erraiak* dira irauli beharrekoak: gizarte ereduak sostengatzen duten barruko makro-estruturako subjektiboak, eguneroko portaerak, kontzientzia moldeak, mikro harremanak eta horiek eusten dituzten psikismoak.

Laugarren hanka honek lotura du dimentsio mikro-politikoarekin, eguneroko bizitzarekin, zortziko txikian abestearekin. Komeni zaigu borroka handien aldarri potoloei itsastea egunerokotasunaren exijentziak eta koherentziak, askorentzat tentazio handiegia izan baitaiteke errailak iraultzearen aldeko pose politikoa norbere erraiekin ez laguntzea: ideiek ekintza konprometitu behar dute, beste guztia niaren apaingarria da. Diskurtsoak itzulpen biografikoa behar du.

Euskal unibertso sinbolikoan garrantzia handia eman zaio esfera produktiboari —lanari—, eta etika zorrotzarekin jantzi dugu jardun produktiboa —diziplina, esfortzuen kultura, sariaren geroratzea—. Baina belaunaldi gutxitan gailendu zaizkio kontsumoaren esferakoak: plazeraren bilatzea, hedonismoa, kapritxoak beteriko bizierak. Festaren argiak piztu zirela ikusi genuen eta edanari eman genion tropelean, gibelak itxaron dezakeela iritzita. Askoren kasuan, edanak ezarririk behar egin bitartean, ezarririk kanporakoa egin du sistemaren aurkako diskurtso hiper-kritikoak.

‘Sistema’ deitzen den hori ez da soilik hor kanpoan bizi den zerbait, berak bizi gaitu. Protesi psikiko bihurtu zaigu, onartu behar genuke bere gordinetan eta sakonean. Ondorioz, psike individualak daude trantsizio handiaren honoan, baita giza premien gaineko ez bai funtsezkoa ere: *zer* eta *zenbat* behar dugun hanka bikook. Castoriadis lagunak esan zigun bezala, gaurko gizaki mendebaldarren muin psikosoziala aldatu behar, bizitzaren aurrean duen jarrera ordeztu behar, bere imaginarioa irauli behar. Zinez pobrea baita pentsatzea bizitzaren azken helburua gehiago ekoiztea eta gehiago kontsumitzea dela.

Lurrikara orok du epizentroa, batetik: lurrikararen lurrazaleko gunea. Eta hipozentroa, bestetik, lurrean behera lerro zuzena eginez gero: lurrikara, haustura, gertatzen den lurpeko gunea. Barruko failan gertaturiko mugimenduak, hipozentroak alegia, eragiten du kanpoan lurrikara. Gizartean antzera: kanpoko aldaketak ez dira gertatuko, edo ez dute luzaroan iraungo, sakoneko tolesduretan mugimenduak eragin ezik. Indar humanizatzaileen krisia ez dago soilik hor kanpoan, nagusiki hemen barruan dago, gizakion hipozentroan: alternatibak irudikatze ezintasun kolektiboan; irudikatze kotan, berauek sinesteko eta sinetsarazteko zailtasunean; bertan goxo bizitzeko gurarian; kontzientzien otzantzean; imaginarioaren kolonizatze ordenazalean; entzefalograma homologatuan; antzutasun subjektiboan; asperdura nihilistan;

biziera egozentrikoetan. Aldaketak epizentroa soilik ez, hipozentroa mimoz kontenplatzea eskatzen du, eta hortxe eragitea, polisa berrantolatzeko ezinbestekoa izango baita deskolonizazio kultural eta mentala (kognitibo eta emozionala).

Hankaz gora jarri beharrekoa da geure egitura libidinal hipermodernoa; *desioaren norabide ultrakapitalista*, deituko diot ponposoki. Hor kanpoan egin beharreko borroka garrantzitsua izanik ere, nekez lortuko dugu ezer egonkorrik saihests psikokulturala kontenplatu ezik. Biziberritu aldera, prest egon behar nork bere barrua bataila-zelai gisa kontenplatzeko, norbere bihotzaren zati bat suntsitzeko.

(...)

Sokratesek ondo bereizi baitizuen *ondo bizitzea* —erosotasuna, plazera, prestigioa eta aberastasuna bilatzea— eta *bizitza ona* —perfekzioa, ongia eta egia bilatzea, nahikotasun materiala oinarri harturik—. Eta bigarrena lortzeko lehenengoari uko egin zion. Egiaren alde hiltzerainoko konpromiso existentziala azaldu zuen gizonak. Teorizatu baino askoz gehiago egin zuen: haragitu egin zuen bere pentsamendu filosofikoa, eta hitzak gorpu bihurtu ziren. Sona handiko euskal kooperatibista zahar bati entzun nion maxima sokratikotzat har litekeena: “Aske izateko, pobrea izan behar da”. Ez da martirioaren aldeko hautua, esan nahi zuen *bizitza ona* eskuratzeko libratu behar gara ondusun materialak edo estatusa idolatratzeko tentaziotik.

Gaur, herri indigenen mugimenduak erdigunean jarri nahi du proposamen bizigarria (Kristo eta Marx, biez liberatzeko ahaleginean beharbada, Wankar izeneko Boliviako indio kitxuak aldarrikatu bezala): “Ideal del Buen Vivir” deitu diote, zelan garatu bizitza ona, beste gizakien eta Lurrarekin bizikidetzan. Egitasmoa bere egin zuen Zapatismoak, baita Munduko Gizarte Foroan bildutako Gizarte Mugimenduen Batzarrak ere.

Eta inperiora ere heldu da. AEBetako telebista kate publikoak famatu egin den dokumentala emititu zuen 1997an. *Affluenza* jarri zioten goiburua, hitz joko esanguratsua eginez: nahasi zituzten *affluence* —abertasuna, oparotasuna— eta *influenza* —gripea—. Bistan da tesia: kontsumismoa gaixotasun kutsagarri gisa tratatu zuten, eta bere kontrako txertoak iradoki.

Kontuak kontu, lagun batek erruki barik esan zidan: “Begiratu kritikoa duzu gaurko gizarteaz, behin baino gehiagotan esan eta idatzi duzu. Baina, funts-funtsean, ez al gara ederto bizi?”. Bazkari galanta egin ostean esan zidan madarikatuak, lagun arte beroan geundela, bertsoen bat tarteka eta esofagoa erakusterainoko kantu betean ari ginela. Bakarren bati negarra zerion, alkoholaren bustiak eragiten duen adiskidetasunaren goraipamen koipetsua, baina. Paradisurik

egotekotan, bertara heltzeko metro bakarrera zaudenean esan zidan, alegia. “Funtsean, ez al gara ederto bizi?” Segada larrian sentitu nintzen une batez. Atzamarrekin zerua ukitzen ari den lagun estimatua ez da trantze horretan jartzen. Baina eutsi egin nion, ez nion sistemari himnorik kantatu. Azken batean, alkoholak niri beste lausotua zion ikuspegia lagunari, pentsatu nuen. Traizioari ikusi nion ekarpenik, ordea: aurreiritzi ideologikoetan ez katramilatzeke abisu modura hartu nuen, sinplekerietan ez erortzeko mandatu gisa.

Egia da, gehienok ondo bizi gara, orain arte behinik behin. Krisiak krisi, eta etorkizunak kontrakzio materiala aginduta badigu ere, Europako klase ertainak oro har badu zer jan; badu aterpea; badu garraioa; badu lana edo langabezi saria; badu gizarte segurantza eta ordainpeko erretiroa; badu osasun publikoa; badu logika demokratikodun sistemaxoa; badu heziketarako aukera unibertsala; baditu entretenitzeko hedabide zaparrada, futbol partidak eta hamaika gauzulo *after hours* ibiltzeko. Krisi ekonomikoaren eraginez, adierazle horiek guztiak ari dira kaskartzen (futbola eta entretenimendurako industria ezik), hainbat herritar ari da jauzia ematen segurtasun eremutik hauskortasun eremura, eta hauskortasunetik bazterketara. Klase ertainaren kaskartzea hasi besterik ez da egin, gainera. Baina luzaroan klase ertain zabala esne mamitan bizi izan da, krisiak krisi eta ezberdintasunak ezberdintasun. Eta, halere, estresa, antsietatea, depresioa, nekea, insomnia, tristezia eta herstura dira hedatu. Behar denaren bi-hiru halako daukan gizadiaren txatal hori, zertaz demontre da kexu?

Esan liteke honakoa izan dela jendarte hiperkontsumistaren kontraesanik handiena: sistemak ondasun material bidezko zoriontasuna agindu digu eta, merkatu produktuak fabrikatu eta saltzeko prozesuan, suntsitzen dihardu buru-osasunaren eta bizi pozaren euskarriak. Gizarte hiperkontsumistek abilezia apartekoa azaldu dute bizi-zentzuaren iturri material eta kulturalak higatzeko. Hazkundeak eta beroni loturiko kontsumismoak biosfera larriki degradatu, kohesio soziala ahuldu eta sustrai kulturalak sikatzeaz gain, pertsonalitatea kaltetzen dute. Monokultura kontsumistak norbanakoak deslotzen ditu beren ingurumenetik, beren kulturatik, eta beren izanetik. Alderdi psikikoa ere erori zaio sistemari.

Mendebaldarron kulturari jarraiki, zoriontasuna ondasun eta zerbitzuen kontsumoaren baitan dago. Ostera, Ekialdeko kulturaren adierazpena den budismoak justu kontrakoa dio, E.F. Schumacher izeneko britainiar katolikoak gogorarazi zigun (*Small is beautiful*): bizi-poza handituko zaigu ondasun materialak kontsumitzeko desioa murriztuz gero, oro har niari gutxiago atxikiz gero. Ezin kultura biek arrazoi izan.

(...)



Baina, zerk bermatzen du ongizate subjektiboa? Robert Putman ikerlari ezagunak hauxe dio: “Bizitza asegarria zein faktorek ziurtatzen duten mende erdiz ikertzen ibili eta gero, konklusiorik hedatuena zera da: pertsona batek dituen giza harremanen sakontasuna eta irismena, horixe da zorientasuna diagnostikatzeko parametrorik esanguratsuenak”. Bihurri jartzeko modukoa da: konklusio horretara heltzeko beharrezkoa al zen mende erdiz ikertzea?

Ongizate subjektiboa zerk dakarren galderari modu konplexuagoan erantzun dakiok. Premia oinarrizkoak beteta izateaz gain —elikagaiak, etxebizitza, eta bizitzeko beste emango digun bitarteko segurua—, osasuna behar dugu, bai humanoa nola ingurumenarena. Eta harreman sozialak, eurik baino nola. Segurtasun pertsonala, bestetik. Eta askatasuna, zelan ez, geure garapen pertsonalarekin aurrera egiteko aukera barne. Azkenik, ezinbestekoa zaigu bizitzeko lehen urteetan metatu ohi den *kapital afektiboa*: oinarrizko segurtasun psikologikoa, maitatua izatearen esperientzia funtsezkoa, “dena ondo joango da” dioen ahots barneratua.

Bada, ongizate subjektiboa sortzeko ahalmena duten faktoreak dira, hain zuzen ere, azken hamarkadatan kaltetzen joan direnak herrialderik aberatsenetan. Mundu ‘garatuaren’ kontsumitzeko eta produzitzeko patrioiak arriskuan jartzen du merezi duen guztia. Bizipozaren estrukturak higitu dituen dinamika historikoak, baina, eman digu errezetarik zauriak miazkatzeko: kontsumo hazkorra dugu konpentsazio mekanismo arrunt, ongizate subjektiboa dendetan salgai sekula egon ez bada ere. Are, dendetako salgaiok erosteko diru asko irabazi behar, eta horrek denbora eta energia kendu ohi digu salgai ez daudenak —garrantzitsuenak— eskuratzeko. Zygmunt Baumanek ondo dio: arrakasta komertzialak ongizate subjektiboaren porrota seinatu ohi du.

Ongizatea ondasun gutxiagorekin eta lokarri gehiagorekin eskuratu ohi da, beraz. Kontsumismoa suntsipen masiborako armarik eraginkorrena izaki —natura, bestea eta nia maisuki suntsitzen ditu—, ongizatearen gizarreak asmatu behar luke kontsumoa bere adierazpenik txikienera ekartzen. Bizitza duina eskuratzeko behar den neurria, ez besterik.

Zientziak zera diosku: endorfina izeneko hormonak sortzen digu guk zorientasuna deitzen dugun ongizate subjektiboa. Eta sustantzia kimiko hori sortzen duten jardura gehienak —barrea, ariketa fisikoa, erlaxazio sakona, gorputzen arteko igurtzia, adiskidetasuna, helburu bat lortu izanaren sentsazioa, doinu atsegingarri bat, eta beste mila— merkatu logikatik kanpo daude erabat. Autoestimua bera ez dago lorpenen baitan, baizik eta nork bere mugak onartzeko agertzen duen ahalaren baitan. Espezie gisa, gizakiok gozamina eta bizipoza sor ditzakegu ingurunea ukitu ere egin gabe.

(...)

Hainbat hasi dira, indibiduo soil gisa, egoerari buelta eman guran. Ikusle soil izateari utzi nahi dioten herritarrak dira, panpina puzgarriaren ekimenari gutxitxo iritzita. Oraindik proportzio txikia osatzen dute, baina hazkorra da ekoizteko, kontsumitzeko eta, oro har, bizitzeko moduak kuestionatzen ari diren norbanakoen kopurua munduan. Beharbada nazkatuta lanari emanda bizitzeaz; igual higuinduta horrenbeste traste metatzeaz; akaso nekatuta egoa elikatzeaz; agian barruko hutsaltasunak sakatuta, nork daki. Baina hainbat hasi dira beren bizitzak sinplifikatzeko ahaleginarekin. Bizitzari abiadura kentzeko saiakerak dira euretako asko, bizitza beste modu batera goxatzeko aldarriak. Goxo bildu beharrean *mantra* hegemonikoek eragindako lozorro inkontzientean, hartzaren lozorro alternatiboa dute amets: bestelako mantsotzea, moteltze erabat kontzientea, geldotze bilatua.

(...)

Beharbada herritar kritiko horiek dira gure gizarteetako pertsonarik buruargi eta zentzudunenak. Jakitun dira bizipoza lortzeko utzi behar zaiola norbere beldurretan atrapaturik egoteari. Kontzientzia politiko bizkorreko horiek jakitun dira egungo garapen-ereduak segundo erdi iraungo ez lukeela euren kooperazio barik. Eta ulertu dute zentzurik ez duela nork bere burua egunero pixka bat hiltzeak hazkundera salbatzarren.

(...)

Ondo dago euri-ura jasotzea balde batean, horrenbeste haragi jateari uztea, etxeko balkoian tomate batzuk landatzea geranioen ondoan, edo, urrunago joanda, landa eremu batean ortua jartzea konposterako tokia eginez aldi berean. Gauza txikiakin prestatzen hasi behar genuke, handiak datozenean bizitzari hutsik egin ez diezaigun. Trantsizio sozial-ekologiko handiari koherentzia biografiko txikiak bilatu behar zaizkio, soilik aldarri handietan despistatu barik.

Halere, premiazkoa bada ere gudan eragitea norbanako gisa, hor bada saihestu beharreko beste tentazio bat: ‘arduraren indibidualizazioak’ ere despistatzeko balio dezake. Balio dezake, nolabait, norbere bizi-estilo *cool* eta ‘aurrerakoian’ identitatea entretenitzeko, bitartean bistatik galduz instituzio handiek —governuek, enpresek, publizitateak...— nola jarraitzen duten kontsumoaren apologia sustatzen.

Izan ere, korporazioek ikusi nahi gaituzte bizitza antolatzen kontsumo ekintzen bidez, irribarre behartuarekin bada ere. Gobernuak autoak erostera animatu gaituzte, hazkunde ekonomikoari

etsi aldera diru publikoa emanez. Sindikatuek soldata igoerekin egiten dute amets. Guztiak daude ‘hazkunderen erlijioari’ atxikita. Eta, sistemaren gailur semantiko eta lirikoa hori izanik, okerra litzateke pentsatzea herritarrok txintxo birziklatzearekin konponduko dela arazo ekologikoa.

Bizitza txikiaren beharrezko politizazioak bestea behar du, esana dugu: inteligentzia makropolitikoa aktibatzea, ulertze aldera polisaren antolamendua (estrukturak) errotik aldatzeaz hitz egiteko unea dela. Etikaren muina ez da norbera ona izatea mundu injustu eta kirastuan, ezpada mundua hobetzea beronen estrukturak aldatuz. Adibide baterako: kontsumo ekologikorako taldeak eta kooperatibak sortzea, orain eta hemen gauzak beste modu batera egiteko egitura lokal eraginkorrak dira, baina beharrezkoak izanik ere, ez dira nahikoak. Produktu ekologikoen aldeko hautuak transgenikoen debekua behar du, ezinezkoa baita bien arteko bizikidetasuna. Egunerokotasuna aldatzera zuzendutako tokiko alternatibak uztartu behar dira aldarri politiko zabalagoekin.

Zabalagora joz, inteligentzia politikoak dio arazo ekologikoa kokatu behar dela gaurko dominazio harremanen gaineko irakurketa politiko zabalagoan. Krisi soziala eta ekologikoa eskutik baitoaz: kontsumo material globala ez dago ulertzerik elite globalaren jardunari erreparatu barik, neurtu barik ezberdintasunek zein tamaina hartu duten azken urteotan. Alegia, bada korrelazio positiboa ezberdintasunak hazi izanaren eta itsasoaren ur-maila haztearen artean. Ezingo da bigarrena konpondu lehenengoari tinko heldu gabe.

Duela hamarkada batzuk beharrezkoa zen seinalatzea aldaketa pertsonalak sozialak bezain garrantzitsuak zirela, diskurtso makro-politiko handien sasoietan sarritan ez baitzegoen koherentzia biografikorik. Gaur, ostera, beharrezkoa da seinalatzea aldaketa sozialak pertsonalak bezain garrantzitsuak direla, zortziko txikia bezain garrantzitsua dela gizarteko makro-estrukturak auzitan jartzea. Eskuzabaltasuna falta zaio aktibismo sozialik gabeko aldakuntza indibidualari.

(...)

Geroak ez du ekarriko eszenategi bat eta bakarra, ugari baizik. Euskal herritarrona zein izango den faktore asko eta konplexuen baitan dago, noski. Besteak beste, gure ahalmen komunitarioaren baitakoa izango da. *Transition* espirituak dioen moduan, botere publiko eta politikoen zain geratuz gero, gutxiegi izango da, baita beranduegi ere; norbanako gisa jardutea erabakiz gero, gutxiegi; han-hemen komunitatearen indarra behar bezala suspertuz gero, nahikoa izan daiteke eta garaiz ibil gaitzke.

Berez dator: *harrialdi* berrian, euskal herritarrontzat lehentasuna behar luke ahalmentze komunitarioak, tokikotasunak duen muskulaturak marka baitezake bizi kalitate duinaren eta degradazio zitalaren arteko aldea. Mundu berri bat egikaritzen hasia da, eta euskal belaunaldi berrien egitasmoak inoizko uzturen begiratu behar lioke *business as usual* proposamenari. Etorkizuneko egitasmoa ez datza erosahalmena handitzean.

Gurean bada paradoxa interesgarria. Batetik, euskal nortasunari berezkoa zaio garapenkeriaren nolabaiteko idolatria, *desarrollismoaren* txapeldunak gara, datu hotzek baieztatzen dute. “Euskaldun ona, euskaldun langilea” identitate-oinak badu deriba produktibista bat, hori ere harrizkoa. Ekimenerako grina naturala sublimatu bagenu legez “zenbat eta gehiago, orduan eta hobeto” aldarri moderno-industrialean. Nahastu izan bagenu bezala bertutea eta bizioa: katramilatu baititugu ekiteko sena eta *beti gehiago* agindu kulturala, matazatu baititugu ekintzailetasuna eta hazkunde etengabea (nagusiki zenbait kultura sozial eta politikotan).

Bestetik, autoeraketarako bulkada eta esperientzia historikoa dugu. Beharbada munduan inor gutxi erakuts dezakeen neurrian garatu dugu *autoeraketa ekonomikoa* (landa-munduaren minfundismoak milaka urtez jaten emateaz gain, testuinguru modernoan metro koadroko sortu dugun kooperatiba kopurua eta ekonomia sozialaren inguruan dagoen pentsamendu dentsitatea); *autoeraketa hezkuntzan* (ikastolen mugimendu historikoa, nagusiki); eta nortasunaren aldeko *autoeraketa kulturala* (euskararen mugimendua, batez ere); ahaztu barik gazte mugimenduak espazio propioak autogestionatzeko agertu duen ahalmena, jai herrikoiak sortzeko bulkada, Korrika bezalako masa fenomeno erraldoiak bi urterik behin, edo azken urteotako kontsumo-taldeak (2010ean, Gipuzkoa igaro zen 3 talde izatetik 33 talde izatera). Praktikan aurreratuta gaude, protagonista zuzenen mende baitaude egitura asko. Nahikoa trinkoa den ehundura komunitarioa dugu, nolabaiteko gizarte saretua, halako konjurazio solidoa. Beharbada ahalmen komunitarioarekin konpentsatu ditugu herri gisa faltan izan ditugun bitarteko administratibo-estatalak eta, pronostiko guztien kontra bizirik diraugula ikusita, ez dirudi geroari begira baztertzekoa denik ahal hori. Are gehiago, geroak harrizera joko badu.

Bai, geurera ere heldua da bizitzaren pribatizatzeko hipermodernoaren doinua. Eta ez, gure herriak apenas duen etorkizunean hain erabakigarria izango den kapital naturalik (baliabide estrategikorik), munduan pobreziaren definizioa nabarmen aldatuko den sasoirako: diru-sarreratik harago, ondo bizitzeko beharrezkoa den euskarri fisiko eta ekosistemikoa bermatuta izateak egingo gaitu aberats edo pobre. Gainera, lurralde txikia izateaz gain, bi estatutan eta hiru administratibotan gaude banatuta: lurralde antolaketatik ikusita, ez daukagu herri ikuspeirik, ez daukagu antolaketa komun gutxienezkorik. Halaber, ez da gutxiestekoa garai likidootan euskal

gizarteak duen trinkotasuna: esperientzia historiko autoeratzaileria; kapital sozial estimagarria; ehundura komunitario sendoa; gizarte konpaktua, maneiagarria, saretua, sozialki kohesionatua (sentipen politiko-nazionaletan dago alde); historian gertu eskasiaren esperientzia; egikaritze instituzional deszentralizatua; distantzia laburrak; hiri handirik eta megalopolirik ez; identitate-zentzu trinkoa; norbanako engaiatuak batez bestekotik gora; lurraldearekiko atxikimendua; baserri-giroa estimatzen duen iruditeria.

Gurean ere badira etorkizuneko logiketarako ernamuinak. Besteak beste: Herri-Ola egitasmoa Otxandion; Bagara egitasmoa Leintz bailaran; Zerainen aspaldian hasitako esperientzia aberatsa; Auzolan egitasmo nazionala; Bizi! mugimendua Iparraldean; Zurbaran eskolan (Bilbo) Trantsizio esperientzia. Beren txikian, guztiek azpimarratzen dute norabide jakin batean autoantolatzearen garrantzia.

Likidotik solidorako trantsizioari begira, harrizko herri hau ez da garantia, baina ez da abiapuntu txarra. Ikusita epe erdira kontinenteak estatuetera bildu, estatuak nazioetara ekarri, hiriak herri bihurtu eta hiritarrek herritartu beharko dutela, euskararen herriak ez luke bere izana hiritartu behar, harritu baizik. Bere herri-izaera zaindu eta findu behar luke. Arestik mailua —poesia— erabili zuen harria moldatzeko, herria loalditik esnatzeko, eta sufritu egin zuen, herria harri zelako zati baterako. Ikusmolde soziologikora ekarrita ordea, herri-izaera zume ona da poshazkunde garaian behar dugun saski trinkoa egiteko.

Halere, Euskal Harriak hortik aurrerakoa falta du —gehiago harritu aldera, hobeto prestatu aldera etorkizunak dakarkigun habitat berrirako—: mailuarekin harria moldatzeko egitasmo kontziente eta adostua behar dugu; harria zorrozteko nahikunde politiko aski konpartitua; zorroztarri partekatua. Hots, xede-komunitate bihurtzea falta zaigu, suediaritza nolabait, trantsizio sozio-ekologikoak agintzen duen ibilbide-orria taxutze aldera. Eta xede partekatu hori herriz herri barneratzea falta zaigu, herri oro bihurtuz harri bizi, euskal harriez eginiko konstelazio harrizkoan. Behar dugun *harrimena* urruti dabil indarrean dugun logika sistemiko suntsitzailearen harrikatetik. Harrika egitetik ere aldentuta behar du, eraikuntza garaiak baitira; *denuntziatzea* baino garrantzitsuagoa izango da *enuntziatzea*.

Finean, euskal identitateari badario halako sen produktibista, eta XXI. mendeak behar duen trantsizioak eskatzen digu geure muineko nor kolektiboari aurrez aurre begiratzea, berau berrelaboratzeko. Bizioa erauztean eta bertutea zaintzean datza desafioa: batetik, geure nor kolektiboari darion produktibismotik askatu; bestetik, ekintzailetasun sortzailerako senari eutsi eta berau birbideratu paradigma ekozentriko berriaren mesedetan.

(...)

Trantsizio sozio-ekologikorako ahalegin praktiko guztiek, bakoitzak bere era, erritmo eta neurrian, ulertu dute kontua ez dela etorkizuna diseinatzea iraganaren sakonunetik ateratako formulekin, formulok pixka bat antzaldatur, egokituz, saihests zakarrenak garbituz. Ulertu dute polisa sakonetik birdiseinatu behar dela, loaldi ideologikotik esnatzeko garaia dela, inpotenziaren epidemiatik ateratzeko ordua, eta ekintza dela konfiantza berreskuratzeko modu bakarra.

Loalditik esnatzean, ulertu dute unea iritsi dela metabolismo soziala sinplifikatzeko eta arrazionalizatzeko, herrialde materialki aberatsen aztarna ekologikoa gutxitu eta munduan barreiatutako miseria materiala konpontzen lagundu aldera. Horixe dela XXI. menderako egitekoa.

Ulertu dute agortu direla kapitalismoaren ‘bertuteak’, alboratu behar direla aro industrialaren logika produktibistak, ‘kapitalismo berdea’ despistatzeko baino ez dela, baita setiatuta dagoenaren amarrua ere.

Ulertu dute mugak jarri behar dizkiogula geure buruari, eta erraldoitasun suntsitzaileak bere buruaz beste egin beharko duela, txikitasun sortzailearen mesedetan.

Ulertu dute ‘zelan egin’ baino gehiago —teknikaren eta zientziaren funtsezko eremuak—, ‘nora joan’ nahi dugun jakin behar genukeela.

Ulertu dute aldaketa klimatikoa eta petrolio merkearen agortzea lotu daitezkeela norbere hautu existentzialekin.

Ulertu dute hazkunde ekonomikoa ez dela, Jaungoikoaren oparia bailitzan, sufritzen ditugun gaiztakeria guztiak konpontzeko edabe magikoa (gosea, langabezia, ezberdintasunak, edota gizarte bazterketa). Salbazioa izatetik urruti, hazkunde ekonomikoa amesgaizto bilakatu dela.

Ulertu dute globalizazioak agintzen digun zoriontasuna —merkatu araurik gabekoan oinarritua—, urruti dagoela hanka bikoon benetako premietatik; jasagarria ez izateaz gain, sistema ez dela desiragarria; osasun psikologikoak eskatzen duela gizakiok merkatu-ekonomiatik aldentzea.

Ulertu dute norbere *erraiak irauli* beharko direla —gure matrize kulturala eraldatu, gure psikismoa aldatu, gure nitasuna berriro zizelkatu, gure desioa birbideratu—, eta gizartearen *errailak irauli* beharko ditugula. Hegemonikoaren beraren lengoaia erabiltzearen: sistemaren mendia eror dadin, tunela bi aldetatik zulatu behar.

Ulertu dute automatismo (auto)suntsitzaileak bidea eman behar liokeela ekintza politiko sortzaileari. Leibnizek zioen bezala, gure ekintzen hiru laurdenetan automatak izanik ere, tira egin dakiokela azken laurden sortzaileari.

Ulertu dute nitasuna biek osatzen dutela: “niak eta nire zirkunstantziek”. Eta ezingo dela nitasuna salbatu zirkunstantziak salbatu barik, egokraziatik ekokraziara igarotzean datzala gakoa.

Ulertu dute kausa kolektiboak ez dakarrela, nahitaez, nork bere burua u(r)katzea taldetasunaren mesedetan; nork bere burua hobetzea ekar dezakeela; kausa zentzuzko baten zerbitzura bizitzeak sortzen duela sakrifizioaren poza; engaiatzeari badariola abnegazio bihotz altxagarria; borrokan disfruta daitekeela (Spinozaren formulazioa nahiago bada).

Ulertu dute gutxiago *eduki* beharko dela, eta gehiago *izan*. Nia eraiki daitekeela energia eta material askoz gutxiagorekin. Eta bizitzan arrakasta izatea, bere zailean, sinplea dela: urruti dago egoaren desioari men egitetik, gertuago nor naizen deskubritu eta hori izateko ausardia izatetik.

Ulertu dute egoari hegoak neurrian eman behar zaizkiola, estadio postegoikotik eraiki behar izango baita poshazkudearen gizartea.

Ulertu dute ekinaren bidez eraiki beharko dutela harri aroa. Poshazkudeak intelektua behar duela, baina, oroz gaintetik, gorputzari eta eguneroko praxiari egin beharko diola ohore. Euskaldunaz esan ohi zen bezala, trantsizioak hitzetan motza eta ekintzetan oparua beharko duela.

Ulertu dute ezkon daitezkeela hirurak: nitasunak behar duen barne-aldaketa, interakzioen mikro-munduak behar duen auzolan berria, eta polisaren antolamendu makroak behar duen astindua.

Ulertu dute ‘ondo bizitzea’ eta ‘bizitza ona’ bi gauza direla, eta bigarrena lortzeko lehenengoari uko egiten ikasi behar dela (Sokrates ulertu dute).

Ulertu dute bizi daitekeela hazkunderik gabe. Eta merezi duela.

Ulertu dute eraiki daitekeela gizarte justuagoa, ez-sexista eta bestelako diskriminaziorik gabea, aldi berean Lurraren ustiatzaile izaten jarraituz, eta hori ezin dela etorkizuneko proiektua izan.

Ulertu dute indartsuagoa dela nahi den mundua sortzea, nahi ez dena eraistea baino.

Eta, aterabideari begira, ulertu dute likidotzeari men egitetik urruti, herria harri bihurtu behar dela.

(...)

Alabaina, Euskal Herrian ez dugu ireki espazio mental gehiegirik XXI. mendeko debaterik inportanteenerako, horren baitan egongo bada ere gure etorkizuna (gure ekonomia, bizimodua, kultura, identitatea). Guztion bizitza beste nonbait garatuko da berandu baino lehen, uste baino ezberdinagoa izango den aterpean, baina guk segitzen dugu *dribling* laburrean. Gurean, datorkigunari aurre egiteko ez daukagu herri-estrategia baten zantzurik ere. Gaurko norabide okerraren kuestionatze errotikoak ez du artikulazio kultural-politiko eraginkorrik. Ez behar adinakorik, behinik behin, ezta indar eraldatzaileetan ere.

Azken hamarkadotan gobernu arduratan gehien ibilitakoak —nagusiki *jeltzaleen* abertzaletasuna, baina baita obedientzia estataleko euskal sozialistak— ‘auzi berdea’ integratua dute kudeatze instituzionalean, nabarmenagoa izango da hurrengo urteotan. Betiere, ukitu gabe iraunkortasun ezaren kausa den munduaren konfigurazio instituzionala. Pentsatuz hazkunde ekonomikoarekin jarrai daitekeela, ekonomia desmaterializatzen ari baita eta dagoeneko ez duelako horrenbeste kutsatzen eta horrenbeste energia eta material xahutzen; pentsatuz energiari aurkituko zaiola alternatibarik berriztagarriekin eta aurrerapen teknologiko berriekin. Horri guztiari *garapen jasangarri* deitzen zaio gaur: jarrai dezakegu hazten planetaren biogaitasuna gainditu gabe. Hau da, askok jarraitzen du pentsatzen auziari aurre egin dakiokoela gaurko gizartearen estruktura produktibo, energetiko, azpiegiturazko eta kulturala auzitan jarri gabe; *spot* publizitarioaren jitearekin disimulatuz; zenbait erreforma egitearekin nahikoa izango delako ikuspegi xaloari jarraituz. Gehienez, *modernizazio ekologikoaren* paradigmari edota parke naturalen ereduari eutsiko diote: zenbait espazio arrazionaltasunez jantzi, irrazionaltasunak jarrai dezan gainontzeko guztia kolonizatzen. Kruasanaren osteko sakarina. Auziari behar bezala heltzeko, gizarte osoa *ekologizatze*ko alegia, direnari utzi beharko diote, hortxe zailtasuna.



Borroka armatuaren estrategia alboratuta, ezkerreko abertzaletasunak fase historiko berriari heldu dio, ekin dio biltzeari eta hegemonia politikoa jeltzaleei serio disputatzeari. Erresistentziatik eraikuntzara, nolabait. Eraldaketa orok dakar galera, baita eraldaketok positiboak direnean ere, eta nostalgiak administratzeko adorea agertu du. Ikustear dago etorkizunean zenbat labainduko den posibilismo instituzionalerantz eta garai berrian noraino eutsiko zaion herri-ekimenaren eta gizarte antolatuaren intuizio funtsezkoari (energia sozial-komunitario biziak gizartegintzan inbertituz). Zenbat sozialdemokraziatik, zenbat espiritu libertarioagotik, nolabait.

Nolanahi ere, ezker abertzalearen hezurdura sozio-politikoan gizartegintza alternatiboak ez du aski indarririk izan nazio aldarriekin lehiatzeko. Garapen ereduari azken bi paragrafoak eskaini zaizkio gehienetan, azken unean norbaitek ezker aldean atximurka egin izan balu bezala, gogoraraziz “ez ahaztu hau ere bagarela”. Independentziaren ametsak markatu du agenda, Aitaren Etxean morroi izateari uzteko nahiak egin du nagusiki kultura politiko hori; alegia, gure herriaren forma administratibo-territorial-politikoak. Eta diskurtsoari garapenari buruzko gogoeta gehitzekotan, berau termino klasikoetan dator maiz: krisi garaian pizgarri keynesiarrekin ekonomia estimulatu eta herritarron erosahalmena handitzeko irrika gailentzen da, kontsumoari eutsi eta hazkundea ziurtatu aldera. Turbo-kapitalismo finantzario desarautuari aurre egin behar zaiolakoan turbo-keynesianismoarekin. Ñabardurak ñabardura, Chicagoko Eskola zein materialismo historikoa, biak daude hazkundearen erlijioari atxikita. Muga biofisikoen nozioa lauso, biak ala biak ezgauza dira geroko belaunaldiei etorkizunik eskaintzeko.

Alegia, badirudi euskal ezkerrearen aterabide proposamena datorrela poshazkundearen klabeak barneratu gabe. Ekonomia ekologikoaren funtsa edo aztarna ekologikoa inorentzako idatzitako gidoiak bailiran. Posible bailitzan Aldaketa Globalaren markotik at uztea etorkizuneko *euskalerrigintza* eta horren formulazio politikoa den abertzaletasuna. “Aurrerakoi” hitzak bete ohi du oraindik autodefinizioaren muina, zalantzazkoa bada ere hitz horrek dagoeneko esanahirik ba ote duen; are, sarri amildegiranzko bidean posiziorik “aurreratuenak” ote diren. Akatsaren larriaz konturatu ezik, joera hori nabarmentzen joan liteke ardura instituzional gehiagoko ETA-osteko garai pragmatikoagoan. Barneratuz bezala historian zehar arrazoia beti heretikoaren alde egon dela, baina zutik dirauena Eliza dela.

Euskal identitateari badario beraz nolabaiteko *desarrollismoa* (autoeratzeko joera paregabearekin batera), eta gizartegintzari loturiko gaurko auzi garrantzitsuetan despistea ez da txikia. Egiari zor, guztiok utzi behar genioke garena izateari, guztiok behar genuke tradizio erlijiosoetan *konbertsioa* deitzen dena: noranzko berriak sortze aldera, kolapsora eraman behar

genituzke ohiko esanahiak eta zentzu-estruktura zaharrak. Ezin aurrera egin, izan garena alboratu ezik. Poshazkudearen artikulazio identitario, komunitario eta kultural transbertsala, horixe da egitekoa, baita gurean ere. Herri-artikulazio horrek egon behar luke logika politiko partikularren gainetik eta azpitik, guztiak bustiz, guztiak bilduz, edo gehienek adostasunak uzta(r)tuz. Horrexek bete eta oinarritu behar luke guztien agenda, izan enpresa, sindikatu, herri mugimendu, elkarte, gobernu kanpoko erakunde, edo administrazio publiko. Nago artikulazio integratzaile hori sustatzean datzala euskal herrigintzaren desafiorik garrantzizkoenetakoa, gaurtik hasita.

(...)

Norbere nortasun politikoaren biluztea egiten hasita, bi ditut auzi politiko garrantzitsuztat. Bat, euskararen hizkuntza-komunitateari jarraipena ziurtatzea, euskarak egiten gaitu. Bi, gizartearen nolabaiteko humanizazioa edo eraldatzea, bizierak eraikiz justiziaren, elkartasunaren eta ekologiaren bidetik; sendagarria den sufrimenduaren atala konjuratuz, nolabait. Gainontzekoak bi horien deribatuak dira. Halako forma administratibo-territorial-politikoaren gaineko ezbaiak interesa du aurreko bien mende eta zerbitzura. Helburu eta bitartekoen arteko aldea, alegia.

Ikuspegi horretatik, euskal estatuaren aldeko aldarriari bi aditz erantsiko nizkioke. Batetik, aldarria *doitu* liteke. Bestetik, *norabidetu*.

Doitu. Gure herriak gaitasuna agertu du historian zehar bere birsortzerako egitura funtsezkoak eraikitzeko, burujabetza politikorik gabe, gehienetan herri-ekimenaren eskutik. Historiaren ilunean katramilatu beharrean, adibide gertuko bezain egungoa: Bertsozale Elkartek euskararen hizkuntza komunitatea elikatu du, biziberritu, trinkotu, beregaintasunez jantzi. Eta beharbada Pirritx, Porrotx eta Marimotots euskal naziogintzarentzat azken urteotako aktiborik ederrenetakoa izan dira: umeak masiboki bildu dituzte euskarara, euskaraz goxatu bitartean gizartegintzarako elkartasun baloreak bihotzeratuz. Zaborra kudeatzeko alternatiba erreal eta praktikoa planteatzeko ez da behar izan burujabetza politiko erabatekorik —garaiotan horrelakorik baldin badago—. Bere txikian, ekimen eta egitura garrantzitsuak dira aipatutako hirurak.

Bestetik, *doitu* liteke ondokoaz ohartuz: Estatuak sarri izan dira indar komunitarioak desaktibatzearen arrazoiak. Ongizate Estatu deritzona horren adibide da: komunitatea higatu du, herri-boterea mehetu, gizarte zibila argaldu. Are, beharbada euskal herritarrok potentzia komunitario handia garatu dugu (eta gure biziraupena herri-ekimenaren bidez ziurtatu) baliabide

administratibo-instituzionalik izan ez dugulako. Gure herria zein anitza den ikusita, ez dirudi egitura politiko-juridikoari osorik fida dakiokenik euskalerrigintza.

Euskal estatuaren aldeko aldarria *norabidetu* liteke. Entelekia hutsaetik harago, edukiz bete alegia, funtsean garapen-ereduaren galdera behingoz ekarriz arteria politiko zentralera. Despistearen poloa izango da, bere epelean urtuko den poloa, garapen-ereduaren iraultzea etorkizuneko proiektu politiko eraldatzailearen muin-muinean jartzen ez duen ezkerreko biltze subiranozalea. Besteak beste, burujabetza norabide guztietan indar berarekin aldarrikatzean baitatza kontua, baita elikagaietan eta energian ere.

Estatu barik zail daukagu: hizkuntza komunitate orok behar du daukaguna baino segurtasun juridiko-politiko handiagoa, biziraungo badu; tresna gehiago behar da neurri ekonomiko-sozialak hartzeko eta garapen orekatua ziurtatzeko; bi estatutan eta hiru administrazioetan zatituta egoteak serio zailtzen du behar den ikuspegi bateratua eta antolaketa komuna. Herri orok behar du bere lurralderako botere politiko berreskuratzea, merkatu finantzarioen subiranotasunari kontrajartzea gizartearen erabakimena. Baina estatuarekin, berau garrantzitsua izanik ere, ez dago bermaturik ez hizkuntza komunitatea ez garapen-eredu arrazoizkoa. Herri gisa aurrera egin behar genuke txapel juridiko-politikoan aurrerakuntzak gertatu edo ez, bulkada komunitario enigmatiko bezain indartsuari ohore eginez. Izan ere, itxura guztien arabera estaturik gabe kudeatu beharko dugu poshazkunde garaiaren hastapena.

(...)

Kontzientzia sozio-ekologikoak urratsak eman ditu azken hamarkadatan, baina oraindik ez diogu muinari heldu: gizakion sistema sozioekonomikoen hedatze etengabearen eta biosfera mugatuaren arteko talka funtsezkoa. Behar den norabide aldaketa sakona nekez etorriko da hauteskunde deialdi bakoitzean txintxo bozkatzan duen herritarraren eskutik. Ezta hauteskunderik hauteskunde bizi den egitasmo politikotik ere. Horri ezer kendu barik, behar dena askoz erradikalagoa da. Pentsamendu sozioekologikoa subertsiboa da nahitaez: gizartearen ardatza ekoizpena ez dela dio, giza bizitzaren helburua kontsumoa handitzean ez datzala.

Deepak Choprak gogorarazi digu metamorfosi erradikal baten adibide klasiko baina esanguratsua: harra tximeleta bihurtzen denekoa. Biologoek diote harraren barne-metabolismoan badirela zelula berezi batzuk. Bestelako zelulekin alderatuta, erabat ezberdinak dira. Hain dira ezberdinak, harrak uste baitu etsaiak direla, eta berauek suntsitzen saiatzen da. Baina zelulak hazten joango dira harraren ehunduran, eta immunitate-sistemak ezin ditu suntsitu behar den arintasunarekin. Gero eta indartsuagoak egingo dira ondorioz, euren artean

konektatzen hasiko dira, harik eta dentsitate egokia lortu arte euren misioa identifikatzeko: tximeleta bihurtu.

Ongi begiratuta, sinestezina da, den-dena aldatzen baita izaki batetik bestera: itxura, funtzioak, aldagaien antolakuntza... Itxura higuinarriko har likatsua, hegoak itxi-zabalka arituko den izaki xarmant bihurtu da.

Gure gizarte aberatsetako ehunduran, munduan oro har, badira metamorfosiaren alde lan egiten diharduten zelula ebolutiboak. Inteligentzia kultural bereziko aleak dira. Eta zelulok biltzean datza desafioa, dentsitate egokia lortze aldera: euren artean konektatu, elkar identifikatu, aitortu, taldekatu, handitu. Metamorfosia dute helburu, eta misioa: likidotik solidorako hegaldia egin, herritarrak harritu, bizitzari forma eta eduki berria eman aldera.

Gizarte hegemonikoaren sistema immunologikoak, ordea, etsai gisa identifikatu zituen lehen estadioan. Bigarren estadioan, nago barneratzen ari dela zelula berrien logika zenbait, oraindik har izaeran gotortuta, hori bai. Eraldatze zelularra ametitu behar luke, hirugarrenean; tximeleta bihurtuko bada, behinik behin.

Mario Benedetti ausartu zen metamorfosia irudikatzeraz: “Zer gertatuko litzateke, egun batean esnatzerakoan, gehiengoak garelako konturatuko bagina?” Hazkunde etengabea, kontsumismo harraparia eta gisako absurdoekin amaitzeko, gutako bakoitzak errebisatu behar lituzke bere hautu existentzialak, bere zakar poltsa eta karakter zakartua, bizitza txikiari erantsiz politika handiarekiko konpromisoa.

Uste baino errazagoa da. Instintu naturalei kasu egitea baino ez da. Sistemak “zu edo ni” dilemaren aurrean jartzen zaituenean, egoskor diotsunean bien artean erabakitzeke, nork bere alde egitea. Ez da hori baino gehiago. Ezta gutxiago ere.